

**ERREGAI ALTERNATIBOekin DABILTzan IBILGAILU BERRIAK BILBOKO
AUTOTAXI ZERBITZURAKO EROSTEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA,
2023**

1. ARTIKULUA. XEDEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioen esparruan, "erregai alternatiboekin dabilzan ibilgailu berriak Bilboko autotaxi zerbitzurako erosteko" dirulaguntzen lerrorako deialdia egin du.

Deialdiaren xedea da erregai alternatiboekin dabilzan ibilgailu berriak erosteko dirulaguntzetarako deialdia egitea; ibilgailuek lehen matrikulazioak izan behar dute, eta errekuntzako motorrekin dabilzan beste ibilgailu batzuk ordeztuko ematen dira dirulaguntzak, hartara airearen kalitatea hobetearren, zaratazko kutsadura gutxitzearen eta berotegi-efektua duten gasen isurpena eta energia-kontsumoa gutxitzearen.

Alde horretatik, bat etorritik *"Energiaren, Meatzeen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak ibilgailu hibrido entxufaezinak 4/2019 Legearen barruan aintzat ez hartu izanari buruz emandako ohar argigarriarekin (4/2019 Legea, 2021eko martxoaren 1ekoa, EAEko energia-jasangarritasunari buruzkoa)"*, adituko da erregai alternatiboa erabiltzen dutela ibilgailu % 100 elektrikoek, hibrido entxufagarriek edo hidrogenoa, bioerregaiak edo gas naturala (Gas Natural Konprimatua, Gas Natural Likidua, Petrolioaren Gas Likidotua) kontsumitzen dutenak.

2. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

Honako lege eta arau hauen pean egongo dira deialdiko dirulaguntzak: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra; hura garatzen duen Araudia, zeina 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa) eta Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko organismoek eta entitateek egindako deialdiaren bidez dirulaguntzak eman behar diren Oinarri arautzaileak, zeintzuk Ordenantza Orokor bidez onetsi baitziren, Udalbatzaren 2016ko ekainaren 30eko Erabakiaren bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu, 2016ko uztailaren 20ko alean (138. zk.).

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Bilboko Udalaren taxi-lizentziaren jabe diren pertsona fisikoak edo Bilboko taxi-elkarteak, baldin eta dirulaguntzaren xede den ibilgailua Bilboko taxi-lizentziek baizik ez badute erabiliko ordeztuko ibilgailu moduan, eta betiere:

- a) 2023an erregai alternatiboekin ibiltzen den ibilgailu bat atxiki badiote edo atxiki behar badiote lizentziari, Udal ikuskaritzak horren alde emandako aktaren bidez egiaztatuta.
- b) Udalak taxiari nahitaez egin beharrekoak diren ikuskapenak egin izana.

c) Ez egotea 38/2003 Legeak (azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra) 13. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan ezarritako debekuetako batean ere.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzen onuradunek 38/2003 Legearen 14. artikulua ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra).

Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, onuradunak bereziki egiaztatu behar du ez daukala zorrik zergen arloan eta Gizarte Segurantzaz.

Ez da dirulaguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta, hura izapidetzeko orduan, artean ere dirulaguntza eskatu duena ez badago egunean Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta tributuetan.

Deialdi honen onuradunek honako betebehar hauek bete beharko dituzte bereziki:

- Dirulaguntza zein lizentziarekin eskatzen den, horixe atxiki beharko diote dirulaguntzaren xede den ibilgailua, hura erosi eta bi hilabeteko epean.
- Ibilgailu hori atxiki eta gutxienez 4 urtean eduki beharko dute Bilboko taxi-zerbitzuan. Ibilgailua taxi-zerbitzutik kentzen bada gutxienez epe hori igaro barik, Udaleri itzuli beharko zaio jasotako laguntzatik proportzioan dagokion zatia, aurreko paragrafoan adierazitako gutxienez denbora bete artekoa, salbu eta ibilgailua Bilboko beste taxi-baimen baten titularrari eskualdatu eta ibilgailuak epe hori bete arte zerbitzu ematen jarraitu duen kasuan edo salbu zerbitzu ematen ari zela erabateko hondamen justifikatua gertatzeagatik kendu denean ibilgailua, betiere, lizentziari atxikitzen zaion ibilgailu berriak istripua izan duenaren baldintza berberak betetzen baditu.
- Era berean, ibilgailuen jasagarritasunaren inguruan antolatzen diren ikastaroetara, formazio-saioetara eta ekitaldietara joan beharko dute, Mugikortasun eta Jasagarritasun Sailak hala eskatzen badi.

Betekizun horiek bete ezean, gerta liteke onuradunak laguntzaren zati bat itzuli beharra, betekizunak betetzen ez direnetik hasi eta ibilgailu egokituari eusteko epe hori bete arte geratzen den tarteari dagokiona.

5. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK

1.- Deialdian eskaintzen diren dirulaguntzak Bilboko Udalak 2023 ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren 2023 21000 44110 7719900, PEP 2023/00445 partidaren kontura finantzatzen dira.

2.- Deialdi honetarako izendatutako zenbatekoa BERREHUN ETA LAUROGEI MILA (280.000) EURO da.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste diru-zuzkidura bat baimendu arte; Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da, hala gertatuz gero.

4.- Aukera izango da aurrekontu-zuzkidura handitzeko, zenbat eskabide aurkeztu diren ikusita, eta deialdi berririk egin beharrik gabe.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Eskabide bakoitzeko, bost mila (5.000) euroko laguntza emango da, salbu eta ibilgailu % 100 elektrikoen kasuan, hamar mila (10.000) eurokoa izango baita eskabide bakoitzeko.

7. ARTIKULUA. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN IZANGO DUTEN BATERAGARRITASUNA

1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere eman dituen Administrazioa edo ente publiko edo pribatua, den Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioarteko organismoetakoa.

2.- Nolanahi ere, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako jardunaren kostua, nahiz berak bakarrik, nahiz beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

3.- Ibilgailu egokitua bada, eta Sail honek egokitze horretarako emandako dirulaguntzak jaso baditu, dirulaguntza biak izango dira bateragarriak ibilgailu horrentzako.

4.- Udal ebazpenaren ondoren, onuradunek beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten dirulaguntzak edo finantza-laguntzak jasotzen badituzte proiektu bererako, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik hilabete igaro baino lehenago.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK.

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da Udalaren webgunean (www.bilbao.eus); Bilboko Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan, San Agustin Eraikinean; Barrutiko Udal Bulegoetan, ohiko ordutegietan; Bilboko Udalaren gardentasun atarian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean.

Dirulaguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisikoek edo Bilboko taxi-elkarteek, eskabidea (I. eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NANaren edo IFZaren kopia, elkarte bada.
- b) Ibilgailuaren aurrekontua edo ordainagiria.
- c) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuradun izateko ezartzen dituen debekuetako batek ere eragiten ez diolako. (II. Eranskina).
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, ibilgailua gutxienez 4 (lau) urtean Bilboko autotaxi zerbitzuari atxikita egongo delako. (II. Eranskina).
- e) Adierazpen espresu eta erantzukizunpekoa, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak errekerituko dion formazio espezifikoan parte hartu duelako (II. Eranskina).

- f) Udalari nork bere borondatez emandako baimena, tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituen jakiteko datuak biltzeko. II. Eranskina
- g) Aurreko atalean aurreikusitako baimena ematen ez bada edo Udalak ezin badu eskuratu, tributu-zorrik eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak, zerga-administrazio eskudunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, hurrenez hurren, urte barruan emanak.
- h) “Hartzekodunen fitxa” behar bezala beteta eta bankuko kontuaren titulartasuna justifikatzen duen agiria (III. Eranskina).
- i) Bestelako laguntzarik eskatu bada, eskatutako laguntzen gaineko erantzukizunpeko aitorpena. (IV. eranskina).

2.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein eratara bidal daitezke.

3.- Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea. Nolanahi ere, aurrekonturik baliatzeko moduan egon edo ez, laguntzak jasotzeko eskabidea aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaituko da. Informazioa Udalaren web-gunean ere egongo da, www.bilbao.eus helbidean, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren informazioari dagokion atalean.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Dirulaguntzetarako deialdi honetarako izendatutako aurrekontu-kreditua deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo Bilboko taxien elkarteei banatuko zaie, 6. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera, eta aukera hori zabalik egongo da aurrekontuaren zuzkidura agortu bitartean.

Dirulaguntzak eman edo ez ebazteko hurrenkera, berriz, eskabidea behar bezala eta deialdian adierazitako dokumentazio guztiarekin aurkeztu den egunaren eta orduaren arabera izango da, edo dokumenturen bat huts eginez gero, errekeritutako dokumentuak aurkeztu diren egunaren arabera.

2.- Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraio Zuzendariordezari atxikitako teknikariek osatuko dute Prozedura bideratzeko eskumena duen organoa.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du, honako hauek egiaztatu ondoren:

- Garraio Zuzendariordezako udal ikuskaritzak txosten bat eman duela, adierazten duena ez dagoela eragozpenik diruz laguntzekoa den ibilgailua taxi gisa ibil dadin Bilbon, eta une horretan taxi-lizentziari atxikita dagoen ibilgailuak igaro dituela urteko azterketa arruntak.
- Onuradunak dokumentazio errekeritu guztia aurkeztu duela.
- Onuradunak egunean dituela tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez duela epe exekutiboko tributu-zehapenik edo zorrik Udal honekin, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta, haien exekuzioa gerarazita edo *sub iudice*.

3.- Gobernu Batzordeak edo hark eskuordetutakoak ebatziko du prozedurari buruz.

Eskaerari buruz ebatzi eta interesdunei ebazpena jakinarazteko epea, gehienez ere, hiru aste izango da, eskabidea aurkeztu zenetik kontatzen hasita, edo ongitzeko errekeritu diren agiriak aurkezten direnetik hasita, baldin eta errekeritu badira.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahalko da.

Eskatutako dirulaguntza onesteko edo ezesteko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenaren kontra, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegien artean dagokion hartan, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean.

4.- Izapidetzeko eta ebazteko egintzak jakinarazpen pertsonalaren bidez jakinaraziko dira.

5.- Deialdi honetan onartu diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa txikiagoa bada dirulaguntza hauetarako izendatutako zenbatekoa baino, soberakina Bilboko taxi zerbitzuko ibilgailuak egokitzeko dirulaguntzen deialdiari batuko zaio.

10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren ordezkariak emango du onartutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua.

11. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Ibilgailua 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi beharko da, eta justifikazioa 2024ko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Udalak ofizioz egiaztatuko du zelan udal ikuskaritzak gai jo duen ibilgailua taxi-zerbitzuari atxikitze; ezinbesteko baldintza da dirulaguntza justifikatzeko. Era berean, Udalak ofizioz egiaztatuko ditu IATaren fitxa teknikoa eta zirkulazio-baimena.

Dirulaguntza justifikatzeko, hauek aurkeztu behar dira:

- Ibilgailua erosi zeneko jatorrizko ordainagiria, eskatzailearen izenean dagoena, 2024ko urtarrilaren 1 baino lehenagokoa. Ordainagiri horretan zehaztuta agertu beharko dira:
 - o Matrikula edo bastidore zenbakia.
 - o Ibilgailuaren marka.
 - o Modeloa.
- Ordainagiria osorik ordaindu izanaren egiaztapiriak.
- Bestelako laguntzarik eskatu bada, eskatutako laguntzen gaineko erantzukizunpeko adierazpena. (IV. eranskina).

13. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua erosteko gastuak, BEZa salbu, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan adierazitakoaren arabera.

14. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo bertan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkutatzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, dirulaguntza jasotzen den unetik aurrera.

15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, dirulaguntzen publizitatea egingo da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2023ko otsailaren 28an
Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila.